

## ALKATE DEKRETUA

**GORKA MURUA MACUSO** jaunak, Irurako Udaleko alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1. atalean xedatutakoaren arabera, honako hau:

### IKUSIRIK

Irurako udalak 2017ko udaberrian, udaletxea eraberritzeko aurreproiektuen lehiaketa antolatu zuen. Ondoren, 2017ko ekainaren 9ko 108/2017 Alkate Dekretuaren bidez, Xabier Barrutieta Basurko arkitekto jauna izan zen lehiaketaren irabazle eta berari esleitu zitzaion aurreproiektua.

Ondoren, 32/2018 zk Alkate Dekretuz, 2018ko otsailaren 14an "Irurako Udal eraikina osorik berritzeko eta zabaltzea" egikartzeko proiektuaren idazketa ere agindu zitzaion.

Gauzak horrela, udalak, herritarren arteko bi partaidetza prozesu eraman zituen aurrera, bata 2018an eta bestea 2020an, non, udaletxe berriaren azken erabakiak hartu zituzten.

Orain, beste behin ere, erabaki horiek proiektuan txertatu behar dira behin betikoz eta, 2017an lehiaketa irabazi zuenaren proiektua izaki, berari dagokio lan hauek amaitzea.

Irurako udalarentzat oso garrantzitsua da Xabier Barrutietari zerbitzu kontratu hau esleitzea, ibilbide guzti honetan bera izan delako ideiarene sortzailea eta zilegi da berak sortutako ideia berak bukatzea. Urteak pasa dira, baina lan zailak eta luzeak izaten dira hauek eta udalari zentzuzkoen iruditzen zaion erabakia hartu du.

Irurako udaletxea handitu eta eraberritzeko exekuzio proiektuaren errebisio eta eguneraketa arduratzeko zerbitzu kontratua esleitzea (CPV: 71000000-8: Arkitektura-, eraikuntza-, ingeniari- eta ikuskaritza-zerbitzuak).

**Kontratu mota:** Zerbitzu kontratua da.

**Aurrekontua:** 33.057,20 € BEZa barne (27.320,00 € gehi %21eko BEZa 5.737,20 €)

**Finantziarioa:** 1 0000.622.920.00.00 2021: ERAIKINAK ADM. OROKORRA partidatik.

Guzti hori ikusita

### ERABAKI DUT

**LEHENA:** Barru arkitektura SLPk egindako eskaintza onartzea. 27.320,00 euro (BEZ gabe), **33.057,20** euro (BEZ barne) prezioan eta kontratua burutu ahal izateko honako gastu hau onartzea: **33.057,20** euro (BEZ barne), kontu izandapena: 1 0000.622.920.00.00.

- 2021 aurrekontu aplikazioaren kontura (AD 178 - 2021).

**BIGARRENA:** Barru arkitektura SLPri erabaki honen berri ematea.

**HIRUGARRENA:** Ebazpen honen berri, Hirigintza sailari eta Kontu-hartzailletza sailari ematea.

**LAUGARRENA:** Irurako web orrialdeko kontratazio profilean argitaratzea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, Dekretu hau izenpetzen dut.

Gorka Murua Macuso  
**Alkateak**

Elektronikoki sinatua

Nire aurrean  
**Irantzu Arrizabalaga Gainza**  
Idazkariak

Elektronikoki sinatua

S. Migel plaza, 1 –20271 Irura–Gipuzkoa – 943 69 13 33 [udala@irura.eus](mailto:udala@irura.eus) – [www.irura.eus](http://www.irura.eus)



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU4bf56726-cf91-4e93-876f-d041d7ae5c6f**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04610>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04610>**

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2021DEKR0087-Dekretua/Decreto ()